

Geokokapen APIak eskaintzen duen Coordinates klasea hautazko lau parametro eskaintzen ditu (ez daude nabigatzaile guztietan inplementatuta edo ezin dira denak erabili gailu guztietan): altitude, altitudeAccuracy, heading eta speed dira hautazko parametro horiek.

Coordinates klasea	Geokokapen APIa
latitude longitude accuracy	Ezker aldeko 3 atributu horiek derrigorrezkoak dira (balio bat itzuli behar dute)
altitude altitudeAccuracy heading speed	Ezker aldeko 4 atributu horiek hautazkoak dira (batzuetan ez dute baliorik izango)

Eskatzen da: txantiloia honetan oinarriturik:

<https://jsfiddle.net/juanan/jsexk3rh/12/>

bertan dagoen **JavaScript** kodea aldatzea markagailu batean klikatzean pantailan bistaratu ahal izateko ez soilik uneko posizioa baizik eta baita altituderea ere. Altuera datu hori zuzenean eskuratzea posible ez balitz, Google Mapsek eskaintzen duen *elevationService()*¹ zerbitzuari deitu eta hortik eskuratuko dugu².

elevationService() metodoaren dokumentazioa hemen aurkituko duzu:

<https://developers.google.com/maps/documentation/javascript/examples/elevation-simple>

¹ *elevationService()* metodoa Google Mapseko 3. bertsioetik aurrera dago eskuragarri. Bertsio hori nola kargatzen den ikasteko, metodoaren dokumentazioan eskaintzen den adibidearen HTML kodea aztertzea gomendagarria da

² *elevationService()* zerbitzutik jasotzen duzun altuera zenbaki erreala gisa bistaratu, bi hamartarrera borobilduz (*parseFloat()* metodoa lagungarria egingo zaizu)

Monitorizazioa hasi

Monitorizazioa eten

Zure posizioa: Latitude: 43.307395899999996, Longitude: -2.0105757

